# Elkarte

INFORMAZIO ALDIZKARIA

47



ESPAINIA ESPAÑA

FRANKEO ORDAINDUA / FRANQUEO PAGADO

PUBLIPOSTA / PUBLICORREO


# IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEAREN 20. URTEURRENA



Gogoratu ...


**ARABA**
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

**GIPUZKOA**
Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

**BIZKAIA**
Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com



%100ean birziklatutako paperean inprimatua

ARGITARATZAILEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN KONFEDERAZIO KOORDINATZAILEA • L.G.: VI-123/01

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
  Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkartea.

## GIPUZKOA

- **AGAER**
  Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkartea.
- **AGE**
  Gipuzkoako epilepsiaren elkartea.
- **AGI**
  Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkartea.
- **ANAIDIA**
  Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasuna.
- **ASPARGI**
  Gipuzkoako parkinson elkartea.
- **BEGIRIS**
  Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkartea.
- **BIZI-BIDE**
  Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkartea.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**
  Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkartea.
- **KEMEN**
  Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**
  Lezoko gutxituen elkartea.

## BIZKAIA

- **ACCU**
  Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolitisa duten Gaixoen Elkartea.
- **ADELA**
  Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkartea.
- **ADELES**
  Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkartea.
- **ADEMBI**
  Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea.
- **ADISA**
  Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkartea.
- **AHEVA**
  Bizkaiko hemofiliaren elkartea.
- **ALCER**
  Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkartea.
- **ARGIA**
  Bizkaiko Ostomizatuen Elkartea.
- **ASEBI**
  Asociación Bizkaia Elkartea Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**
  Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.
- **AVAH**
  Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkartea.
- **BENE**
  Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkartea.
- **BIDARI**
  Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkartea.
- **BIZKEL**
  Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.
- **CODISFIBA**
  Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkartea.
- **EFELA**
  Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkartea.
- **EMAN ESKUA**
  Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkartea.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**
  Elbarrituen eta Gaixoen Kristau Elkartea.
- **LEVAR**
  Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkartea.

**Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.**
**Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

# AURKIBIDEA


20 Urte bete dira euskal autonimia erkidegoan irisgarritasuna sustatzeko legea onartu zela: gure elkartearen egitekoa legea prestatzeko eta onartzeko prozeduran ........ 4

Irisgarritasuna sustatzeko legearen sortze-prozedura ........ 5

Irisgarritasuna sustatzeko legea onartu egin zen ........ 8

Irisgarritasuna sustatzeko legearen garapena ........ 11

Indarrean den arau-esparruak irisgarritasun unibertsalarekiko duen eragina ........ 13

Irisgarritasun unibertsala sustatzeko politiken egungo egoera ........ 14

Irisgarritasun unibertsalaren eskubidea eraginkorra izan dadin lortzeko erronkak ........ 22

# 20

## URTE BETE DIRA EUSKAL AUTONIMIA ERKIDEGOAN IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA ONARTU ZELA: GURE ELKARTEAREN EGITEKOA LEGEA PRESTATZEKO ETA ONARTZEKO PROZEDURAN

Eusko Jaurlaritzak aho batez onartu zuen 1997ko abenduaren 4an Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, xede izanik hiri-ingurunearen, bide publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

Legea onartu zela 20 urte bete direla eta, Elkartean konfederazioa zenbait ekintza ari da garatzen 2017ko urtearen joanean, honako hauek helburutzat hartuta: agerian uztea zein izan den desgaitasunen bat duten pertsonen ordezkari den elkartearen egitekoa legea prestatzen, onartzen eta hura gerora garatzen; ebaluatzea hain garrantzitsua den lege-bitartekoaren betetze-maila; eta denon artean oinarriak ezartzea, irisgarritasun unibertsalaren eskubidea bermatze aldera beste politika eta neurri batzuk susta daitezen.

Horrenbestez, Elkarte aldizkariaren ale hau monografikoa izango da; batetik, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onar zedin Konfederazioak, desgaitasun fisikoa duten pertsonen ordezkaria den aldetik, gauzatutako ekintza erreibindikatzailearen nondik norakoak aurkeztuko ditugu, eta bestetik, erakunde publikoekin zein arlo honetan diharduten eragileekin batera Legea garatzeko egindako lan andanaren berri emango dugu. Horrezaz gain, Legea onartu zela 20 urte pasa ondoren, irisgarritasun unibertsalaren eskubidearen egungo egoerari buruzko gure ikuspegia zein den azalduko dugu, eta irisgarritasun unibertsalaren alorrean politika publikoak zein pribatuak sustatze aldera, gure ustez, onartu beharko liratekeen helburuak ere bai; izan ere, pertsona guztiek aukera berberak eduki ditzaten bermatzea dugu xede.

# IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEAREN SORTZE-PROZEDURA

Euskal Autonomia Erkidegoan, 80ko hamarkadaren hasieran, bi araudi onartu ziren, eta une hartan berebiziko garrantzia izan zuten desgaitasunak dituzten pertsonei gainerako herritarren berdintasun-baldintzetan gizartean parte hartzea eragozten zieten oztopo fisikoak desagerrarazte aldera aurrerapausoak emateko.

Batetik, Hirigintza-oztopoak kentzeko araudiari buruzko martxoaren 23ko 59/1981 Dekretua onartu zen, xede honekin: *"gure hiri, hiribildu eta herrietan hirigintza-oztopo berriak sor ez daitezen arauak ematea, eta dagoeneko egon dagoen hiri-antolaketa arian-arian egokitzeko eta hobetzeko beharrezko diren norabideak ematea"*. Eta bestetik, Bezeroaren Araudiaren azaroaren 18ko 10/1981 Legeak beharrezkotzat jo zuen honako hau erregulatzeko arau bat xedatzea: *"Eusko Jaurlaritzak hirigintza-oztopoak eta oztopo-arkitektonikoak kentzeko arauak jarriko ditu, zaharrei eta ezinduei hiriguneetan ibiltzea eta garraiobide zein zerbitzu publikoez baliatzea errazagotuz"*.

Horrek, halaber, Arkitektura-oztopoak kentzeko araudiari buruzko abenduaren 19ko 16/1983 Dekretua onartzea eragin zuen, xede hau zuela: *"gure eraikinetan arkitektura-oztopo berriak sor ez daitezen arauak ematea, eta dagoeneko eraikita dagoena arian-arian egokitzeko eta hobetzeko beharrezko diren norabideak ematea"*.

Nahiz eta bi dekretu horien bidez aurrerapausoak eman ziren, Konfederazio Koordinatzaileak adierazi zuen aurrerapauso horiek ez zirela nahikoak, gerora ere eraikitzen ziren eraikinek eta inguruneek ez zituztelako bermatzen beharrezko irisgarritasun-baldintzak pertsona guztientzat. Horren adierazgarri da Konfederazioak egin zituen galderak *"Hemen ez zen kontuan izan: errealitatea eta Legea ez datoz bat"* izenburu jarri zioten hitzaldi batean; hitzaldi hori 1981eko martxoaren 1ean izan zen, *"Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintza-oztopoak eta oztopo arkitektonikoak kentzeko araudiaren garapena"* izenburuko mahai-inguruaren esparruan. Zehazki, galdera hauek egin zituen:

> ***Kontua zein da, ea nahikoak diren orain arteko arauak? Nahiz eta itxura teknikoa ona izan, ez al genuke aplikazio-eremua zabaltzeaz arduratu behar? Noiz lortuko dugu arlo pertsonalean ere eragina izatea, etxebizitza partikularrarekin gertatzen den bezala, besteak beste? Gauza bera gertatzen da garraioarekin, nola lortu ez bakarrik jada eginda dagoena egokitzea, baizik eta egiten diren unetik beretik pertsona guztiak kontuan hartzea?***

Hala, beraz, desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak aldarrikatzeko jardueran eta gizarte ekitatiboa lortzeko bidean beste fase bat jarri zen abian, eta ahalegin guztien helburua hau zen: indarrean zen araudia gaindituko zuen Irisgarritasun Lege bat prestatu eta onar zedin eskatzea.

Horretarako, 1991ko irailaren 26an bilera bat egiteko elkartu ziren Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila eta Konfederazioa; bilera hartan, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen ordezkari den elkarteak lantalde bat eratzea proposatu zuen, beste lege bat onartzeko beharrezko urratsak emate aldera. Eskaera horri erantzuteko, konpromiso bat hartu zen: *"Saileko teknikariez eta Konfederazio Koordinatzaileko kideez osatutako Lan Batzorde Tekniko bat lehenbailehen osatzea, indarrean zen araudia ikuspegi kritikoz aztertzen hasteko, testu bategin baten zirriborroa edo proiektua prestatze aldera"*.

Aurreproiektua igorri eta beste fase bat hasi zen: erakundeen erantzunik eza, aldaketa politikoak, Batzorde Teknikoak egindako lanaren emaitza zenbait eragileri igorri (Lehendakariari, Arartekoari, Legebiltzarreko alderdiei, etab.) eta erakundeak aldaketak egitea proposatu (Aurreproiektuan jasotakoak) nahiz jakin hartutako erabakiak bertan behera gera zitezkeela. Azken batean, hartutako konpromisoak ez ziren bete eta Lan Batzorde Teknikoak egindako lanaren emaitza gauzatzeko ez zen politikarik sustatu, nahiz eta Lan Batzorde Teknikoa autonomia-erkidegoko administrazioko teknikarien ordezkariez eta desgaitasuna duten pertsonen ordezkariden elkarteko kideez osatua egon.

Aurreproiektuaren kontua ez aurrera, ez atzera zegoela ikusita, Konfederazio Koordinatzaileak erabaki zuen Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, ekintza erreibindikatzaile bat egitea, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea egiteko prozedurari bultzada politiko bat eman ziezaioten eskatzeko, eta, hala, pertsona guztientzako eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatuko zuen oinarrizko tresna bat onartzeko. Hala, mezu hau igorri zion gizarteari:

**Horregatik salatzen dugu egoera ekintza erreibindikatzaile honen bidez, bai eta Legea beharrezkoa delako ere guztion ongizaterako eta batzuen premiei erantzuteko. Horrenbestez:**

**IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA, LEHENBAILEHEN!**


EL MUNDO DEL PAIS VASCO /1

DE DICIEMBRE DE 1996

VIVIR AQUI

POR UN ESPACIO PUBLICO MAS ACCESIBLE

Disminuidos denuncian con protestas la 'pasividad' del Ejecutivo autónomo

VITORIA.—Disminuidos físicos protagonizaron ayer diversos actos de protesta en Vitoria, frente a la sede del departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno vasco.

Este colectivo quiso reivindicar de esta forma la agilización del trámite para la aprobación de la Ley para la Promoción de la Accesibilidad en espacios públicos, además de denunciar la «pasividad» del Ejecutivo autónomo en esta materia.

El grupo de disminuidos llegó a bloquear con cadenas y una silla de ruedas la puerta de acceso al edificio público impidiendo la salida a un ertzaina.

Los concentrados pintaron las paredes de la sede administrativa con símbolos de minusválidos hasta la llegada de una patrulla de la Ertzaintza.

Pág. 5


12

gisartea

KONTZENTRAZIOA EGIN ZUTEN ATZO LURRALDE ANTOLAKETA SAILAREN EGOITZAKO ATARIAN

Oztopoak Kentzeko Legea eskatu diote ezinduek Jaurlaritzari

Ezinduen Eguna izan zen atzo Europako Batasuneko estatuetan. Horrelakoetan ohiko denez, hainbat ekintza egin ziren ezinduen arazoak agerian uzteko. Gizartean integratzeko ahalbideak jartzea izan zen egindako aldarrikapen nagusia.

Enpleguaren aldeko itunaren premia

1996/12/04


GIZARTEA

20/ EMAKUNDE RECONOCE QUE EL GENERO INFLUYE EN EL ACCESO AL TRABAJO. 21/ EL GOBIERNO DE LAKUA APROBO FINALMENTE LAS DOT. 22/ ECOLOGISTAS Y CONSUMIDORES RECHAZAN LOS ENVASES DESECHABLES

## Piden a Lakua la Ley de Accesibilidad

■ La Coordinadora de Disminuidos Físicos realizó una protesta ante Ordenación del Territorio. ■ Reclaman la ley que empezó a tramitarse en el 91. ■ El Gobierno alega que el texto se aprobará el próximo año.

Pintadas en las que se leía «nondik» y en las que aparecía una silla de ruedas ilustraron la protesta que disminuidos físicos de Vascongadas protagonizaron ante la Consejería de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. Los concentrados urgieron al Gobierno a sacar, «ya», una Ley de Accesibilidad «para que desaparezcan las barreras físicas» de pueblos y ciudades de la CAV. La Consejería, por su parte, justifica la demora alegando que se trata de un texto ambicioso y, por lo tanto, de costosa elaboración. Con todo, anunció que estará listo el próximo año.

## Pacto por el empleo para las personas con minusvalía

1996/12/04

# IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA ONARTU EGIN ZEN

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea 1997ko abenduaren 4an izan zen Osoko Bilkuran onartu zen; merezi du adieraztea aho batez onartu zela eta Konfederazioko ordezkariak ere bertaratu zirela, agerian uzteko, batetik, elkartearen lana erabakigarria izan zela Legea prestatu eta onar zedin, eta bestetik, adierazteko zeinen garrantzitsua zen lege-bitarteko bat edukitzea aurrera egingo bazen irisgarritasuna irmotasunez sustatzeko.

Protesta-ekintza horren ondoren, 1997ko urtarrilean berriro hasi ziren erakundeak bilerak egiten, Lege-aurreproiektuaren testua orrazteko eta kontsulta juridikoak eta erakundeei egin beharrekoak abiarazteko. Bilera haietan, halaber, garapenerako eranskinak prestatzen lankidetzan aritzeko eta koordinatuta lan egiteko oinarriak jarri ziren.

Kontsultaren azken fasean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduari eta Garraioari buruzko Batzordeari egindako kontsultan, Legebiltzarreko alderdiei idatzi bat igorri zitzaien proposamenak eta testuari egindako zuzenketak gehitzeari babesa eman ziezaioten eskatzeko, eta, horrezaz gain, zer iritzi zuten jakiteko eta Konfederazioaren proposamenak jakinarazteko bilerak ere egin genituen.


## Sancionarán las barreras arquitectónicas

EGIN- 12-5-97

■ El Departamento de Ordenación del Territorio ha elaborado su anteproyecto de ley. ■ Prevé multas de hasta 20 millones por faltas muy graves. ■ En Nafarroa, las sanciones son inferiores al millón.

El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno de Gasteiz ha elaborado el Anteproyecto de Ley para la Promoción de la Accesibilidad. El texto regulará el acceso de las personas con discapacidades físicas a edificios y medios de transporte, e incluye un apartado de sanciones con multas de hasta veinte millones. Esta era una antigua reclamación de la Coordinadora de Disminuidos Físicos de la CAV.

## Una vieja aspiración de los grupos de discapacitados

1997/12/05

D.V. - 5-12-97



**Aprobada la Ley de Accesibilidad**

El Parlamento Vasco aprobó por unanimidad el proyecto de Ley de Accesibilidad, destinado a garantizar el libre acceso de los ciudadanos con alguna limitación a cualquier espacio. La ley obliga a los alojamientos turísticos, viviendas libres y transportes a reservar espacios para personas discapacitadas. La norma, que recoge sanciones de hasta 20 millones de pesetas, también establece que al menos uno de los informativos de ETB cuente con un intérprete en lenguaje de signos y subtítulos. En la imagen, dos minusválidos siguen el debate./EFE

1997/12/05

*20/1997 Legeak hau du xede: "hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentsorialak, aldi baterakoak zein betikoak, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten".* Legea erreferentetzat hartu zen, Estatuan lehena izateaz gain, irisgarritasunaz duen kontzeptuagatik:

- **Pertsonen eskubidearekin zerikusia duen gai gisa hartzen du: ezinbesteko baldintza benetako berdintasuna lortzeko eta mugitzeko edo** komunikatzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonek beren **eskubideez baliatzeko.** Horren haritik, Legearen zioen adierazpenak honako hau dio: *"ingurune fisikora eta komunikaziora irisgarritasuna izatea funtsezko elementu dira, herritar guztiek oinarrizkotzat definitzen diren eskubideez gozatu dezaten ahalbideratzeko".*
- **Gizarte osoarentzako abantaila gisa hartzen du: herritar guztientzako alde onak dakartzan elementu bat (filosofia hau oinarri hartuta: "BEHARREZKOA BATZUENTZAT, ONURAGARRIA GUZTIONTZAT").** Hala da, Legea ez da bakarrik desgaitasunak dituzten pertsonentzat, baizik eta gizarte osoarentzat. Hain zuzen, honela dio Legeak zioen adierazpenean: *"Gaur egungo gizartean, gero eta biziraupen handiagoa dagoela eta istripuz edo gaixotasunez mugitu eta komunikatzeko gaitasuna murriztuta duten pertsona asko eta asko dagoela eta inoizka mugikortasuna mugatuta duen pertsona-kopuru garrantzitsua daukagula, irisgarritasun-baldintzak hobetzeak bizi-kalitate hobea ekarriko du ondorio gisa nola mugitzeko eta/edo komunikatzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzat hala gizarte guztiarentzat".*
- **Pertsonek funtzionamendu- eta harreman-eremu guztietan parte hartzeko funtsezko elementu gisa hartzen du: elementu horrek ez dio eragiten bakarrik oztopo arkitektonikoak eta hirigintza-oztopoak kentzeari,** baizik eta oztopo fisiko oro kentzeari (mugikortasuna, komunikazioa, garraioa, etxebizitza…) eta zeharka ere eragiten die pertsonek bizimodua egiten duten eremuei ere. Zeharkako

ikuspegi horrek berak eragiten du zenbait eragileren konpromisoa ere tarteko izatea (eskumen-eremu askotako ardura duten administrazio publikoak eta gizartea oro har).

- **Sustatu eta eragotzi beharreko elementu gisa hartzen du, eta ez soilik kendu beharreko elementu gisa.** Pertsona guztiek baliabideak era autonomoan erabil ditzaten sustatzea du xede, bai eta bakartze zein bazterketa sozialeko egoerak eragoztea ere.

Legeak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren sorrera arautzen du, kontsulta- eta partehartze-organo gisa; horrenbestez, xedatutakoaren arabera, han ordezkatuta egongo dira irisgarritasuna sustatzeko politiketan parte hartzen duten erakunde publiko zein pribatuak, bai eta *"irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde jardutea xede duten elkarte-erakundeetatik ordezkaritza handien dutenak ere";* Kontseilu horren egitekoetako bat irisgarritasunaren alorrean eskumena duten organoei laguntza emateko eta jarduteko irizpideak proposatzea dela ere zehazten du.

Testuinguru horretan, 1998ko urriaren 1ean egin zen Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua eratzeko bilera, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko sailburuak hitz egin zuen lehenbizi bilera hartan, Legearen aurrekariei eta haren printzipioei buruzko azalpen labur bat emateko: *"Oztopo arkitektonikoak kentzeko araudiari buruzko 1984ko urtarrilaren 19ko Dekretua eta Eraikinen irisgarritasunari buruzko 1989ko maiatzaren 19ko Dekretua izan zituen aitzindari Lege honek. Garai hartan Lege honek gainditu beharko lituzkeen kontzeptuez mintzo ginen. Egun indarrean den Legeak eta Kontseilu honetan izango diren eztabaidak diskriminazio partzial bat egitea baino gehiago izan behar du xede, nahiz eta positiboa izan diskriminazioa; bestalde, kontzeptu berri bati heldu dio, guri dagokigunez unibertsala eta herritar guztientzat: irisgarritasunari, alegia. Gainera, ez diegu soilik erreparatuko hirigintzako alderdiei, beste askori ere bai, hala nola ostalaritzaren erabilerari, jada altxa diren eraikinei, garraiobideei, komunikabideei eta abar".*

Laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea 1998ko apirilaren 28an sartu zen indarrean eta, irisgarritasuna sustatzeko bitartekoa den aldetik, Legea aplika zedin dibulgazioko zein formazioko zenbait ekintza jarri ziren abian, bai eta Legearen printzipioak, helburuak eta edukia hedatzeko ere, Legearen berri ahalik eta ondoen



**Entra en vigor la Ley para la Promoción de la Accesibilidad**

EGIN 24/04/98 BILBO

Hoy entra en vigor la Ley para la Promoción de la Accesibilidad, aprobada en el pleno del Parlamento de Gasteiz el 4 de diciembre del pasado año. El texto legal contiene 26 artículos y varias disposiciones transitorias. En el plazo de seis meses deberá aprobarse el reglamento que desarrollará la organización y funcionamiento del Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad.

Esta norma persigue, según su propia redacción, «garantizar la accesibilidad del entorno urbano, de los espacios públicos, de los edificios, de los medios de transporte y de los sistemas de comunicación para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y, en particular, por aquéllas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación síquica o sensorial, de carácter temporal o permanente».

**Garantías**

Entre otros aspectos, se establece que todos los espacios públicos deberán garantizar la accesibilidad y que «los poderes públicos promoverán la adaptación gradual de los ya existentes». Se incide en que los planeamientos urbanísticos deberán contemplar los contenidos de la ley y «no serán aprobadas ni otorgadas las correspondientes licencias si no se observan» los criterios legales en cuestión.

Otros artículos hacen referencia a los medios de transporte de carácter público, que deberán reservar espacios para personas que padecen problemas de movilidad y contar con los mecanismos suficientes para que se pueda acceder a su interior con facilidad.

Los medios de transporte deberán adaptarse. ARCHIVO

1998ko Apirila




emango zela, behar beste hedatuko zela eta beteko zela bermatze aldera.

Gauzatu ziren ekintzen artean, merezi du nabarmentzea, halaber, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Konfederazio Koordinatzaileak elkarrekin bidalitako gutuna 1998ko ekainaren 13an zenbait erakunde eta eragileri; gutuna Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sail-

buruak berak sinatu zuen, eta goiburu hau zuen: *“Oztoporik gabeko ingurunea eraikitzea zure esku ere badago”. Testuak, berriz, honela zioen:*


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**Inguru librea eraikitzea zeure esku ere badago. Construir un entorno libre también depende de Ud.**

Como Ud. seguramente sabrá, acaba de entrar en vigor la Ley para la Promoción de la Accesibilidad 20/1997, aprobada por el Parlamento Vasco el 4 de diciembre pasado.

Esta Ley tiene por objeto garantizar la accesibilidad del entorno urbano, de los espacios públicos, de los medios de transporte y de los sistemas de comunicación para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

Aún habiendo avanzado en numerosos ámbitos para mejorar la calidad de vida de toda la sociedad, éste es uno de nuestros grandes retos, por ahora, desgraciadamente, inacabado.

No me cabe duda que Ud., como el resto de profesionales que pueden verse relacionados con este campo, cumplirá cabalmente esta Ley. No es éste, sin embargo, el objeto de mi carta.

1998/06/13

# IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEAREN GARAPENA

Lehen ere adierazi dugunez, Lege-aurreproiektua zehazteko lanak eta hura teknikoki garatzeko lanak aldi berean egin ziren, kasuan kasuko eranskinen bidez. Onartu zenetik, ez zaio Legea garatzeari utzi. Hain zuen, Lan Batzordeak du ardura hori, eta, batzorde horretan modu aktiboan hartzen du parte Konfederazioak, hala nola konparazio-azterlanak eginez Espainiako zein Europako beste araudi batzuekiko, dokumentazio eta ikerketa anitz aztertuz eta abar.

Egindako lan horren ondorioz eta Legearen azken xedapenetako bigarrenak araututakoa aplikatze aldera, bi dekretu hauek onartu ziren: Hiri-inguruneen, gune publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, eta Garraioko irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretua. Bi dekretu horiek, Legearekin batera, aukera ematen dute ondasunen, inguruneen, zerbitzuen eta produktuen irisgarritasuna edukitzeko pertsona guztiek duten eskubidea bermatuko duen esparru juridikoa eratzeko, bai eta hori ahalbidetuko duten irizpide teknikoak ezartzeko ere.

Bestalde, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen zeharkakotasuna eta Legeak irisgarritasuna unibertsal bihurtzeko duen xedea kontuan hartuta, Konfederazioak lan handia egin zuen Legea onartu eta hurrengo urteetan, Legearen printzipioak eta eskakizunak bete zitezen beste alor batzuetako ekintzetan eta arau erregulatzaileetan, hala nola hezkuntza-sisteman, etxebizitzan, garraioan, turismoan, lurralde-antolamenduan, hirigintzan, osasun-sisteman, jokoen zein ikuskizunen antolakuntzan eta abar.



**Los minusválidos de Gipuzkoa promocionaron la ley de accesibilidad**

Cerca de una treintena de minusválidos de Gipuzkoa llevaron a cabo ayer un acto simbólico en el Paseo de La Concha para dar a conocer la ley para la promoción de la accesibilidad, aprobada en el mes de abril. La presidenta de la Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos, Raquel Barroso, encabezó una pequeña marcha entre obstáculos, que pretendía reflejar las dificultades a las que se enfrentan a diario los minusválidos. A continuación, se leyó un comunicado ante la presencia del concejal de Acción Social, Iñaki Barriola, el consejero de vivienda del Gobierno Vasco, Javier Tellería y un representante de la diputación. Los minusválidos reclamaron su derecho a integrarse en la sociedad con igualdad de oportunidades./ARGÜES

Lehen aipatutako dekretuez gain, Espainiako estatuan zenbait araudi onartu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko araudien osagarri irisgarritasun unibertsalaren eskubidea berma dadin lortze aldera. Hauek dira, besteak beste, onartu ziren araudiak: Aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea; Desgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko urbanizatu eta eraikinetan sartzeko eta haiek erabiltzeko oinarrizko irisgarritasun-baldintzak eta bazterketarik eza onesten dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretua; Desgaitasunen bat duten pertsonek informazioaren gizartearekin eta gizarte-komunikabideekin zerikusia duten teknologia, produktu eta zerbitzuetara sarbidea izateko oinarrizko baldintzei buruzko araudia onesten duen arazoaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretua; Desgaitasunen bat duten pertsonek garraiobideak erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzak arautzen dituen azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretua; eta Espazio publiko urbanizatuetara sarbidea izateko eta haiek erabiltzeko oinarrizko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoa garatzeko otsailaren 1eko VIV/561/2010 Agindua.

Araudi horien guztien artean, merezi du nabarmentzea Aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea –gaur egun indargabetuta eta bat eginda dagoena Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuarekin–.Lege hori inflexio-puntua izan zen 2003. urtean, bi kontzeptu hauek sortu baitzituen: "irisgarritasun unibertsala" eta "pertsona guztiak kontuan izango dituen diseinua". Arau-esparru horrek beharrezko estrategiatzat hartzen du irisgarritasun unibertsala, berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko, eta desgaitasunari buruzko paradigma berriei irtenbidea emateko: *"egun jakin badakigu desgaitasuna duen pertsona baten desabantailen jatorria berak dituen zailtasun pertsonalak direla, baina horiez gain eta batez ere gizartean dauden oztopoak eta baldintza mugatzaileak direla desabantaila horien jatorria; kontua da, batez besteko pertsonaren ereduaren arabera sortutako gizartea dela eta herritar horien parte-hartze osoari trabak jartzen dizkiola" (51/2003 Legearen zioen adierazpenean dago jasota).*

- Irisgarritasun unibertsala honela definitzen du: *"inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek, zerbitzuek, hala nola objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza da, segurtasunez eta erosotasunez ulertu, erabil eta gauzatu daitezen, ahal denik eta modurik autonomoen eta naturalenean"*. (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, 2. k) artikulua).
- Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua, honela: *"jarduera honen bitartez, hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahal den neurrian, inguruak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, egitasmoak, gailuak edo tresnak, pertsona guztiek ahalik eta gehien erabiltzeko moduan, ez egokitzerik ez diseinu espezializaturik beharrik gabe"*. (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, 2. l) artikulua).

Bestalde, merezi du aipatzea Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmena, 2006an onartua. Izan ere, batetik, hitzaurrean aitortzen du *"oso garrantzitsua da irisgarritasuna ziurtatzea ingurune fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturalera, osasun- eta hezkuntza-alorrera, eta informazio eta komunikazioetara, desgaitasunen bat duten pertsonek osoki goza ditzaten giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiez"*; eta bestetik, 9. artikuluak dio: *"desgaitasunen bat duen pertsonak independente bizi eta bizitzaren alderdi guztietan parte hartu ahal izan dezan, Estatu Kideek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte desgaitasunen bat duten pertsonek beste guztiek bezalaxe eskura izan ditza-*

*ten ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak (informazio- eta komunikazio-sistemak eta -teknologiak barne), eta publikoari irekiak edo erabilera publikokoak diren bestelako zerbitzuak eta instalazioak, hiriko nahiz landako guneetan".*

## INDARREAN DEN ARAU-ESPARRUAK IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREKIKO DUEN ERAGINA:

**LEHENIK ETA BEHIN:**

**IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA PERTSONA GUZTIENTZAKO DISEINUA EZ DA ASMOEI BURUZKO ADIERAZPEN HUTSA, BAIZIK ETA GURE ORDENAMENDU JURIDIKOAREN ESKAKIZUNA.**

Horren haritik:

- **1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak** irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak noiz eskatu ahal izango diren arautzen du, eta han jasotzen denez, oinarrizko baldintzak eskatzeko gehieneko epea 2017ko abenduaren 4a da.
- **Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak** estatu kide guztiak behartzen ditu irisgarritasunaren eskubidea ziurtatzeko neurriak hartzera, eta konbentzio hori gure ordenamendu juridikoaren zati da 2008an berretsi zenetik.
- **Irisgarritasuna Sustatzeko Legeak** berak, 1997ko abenduaren 24an argitaratua EHAAn, **azken xedapenetako laugarrenak** honela dio: *"Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik lau hilabete igarotakoan jarriko da indarrean lege hau. Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei".*

***Irisgarritasun unibertsala pertsona guztien eskubidea da.***

***Eta irisgarritasuneko baldintzak betetzea erantzun publikoko auzia da, administrazio publikoek bermatu behar baitute beteko dela.***

**ETA BIGARRENIK:**

**IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA PERTSONA GUZTIENTZAKO DISEINUA EZ DIRA KONTZEPTU HUTSAK, BEREKIN EKARRI BAITITUZTE ERAGIN, ONDORIO ETA ALDAKETA JAKIN BATZUK ORAIN ARTE IRISGARRITASUNERAKO POLITIKAK ULERTU ETA APLIKATU DIREN MODUAREKIKO.**

Horrenbestez:

- ERAGIN DU ziurtatzea ibilbide, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, lanabes eta gailu guztiek behar beste baldintza beteko dituztela, **pertsona guztiek, inolako salbuespenik gabe, erabil ditzaten.** Adibidez, ez da irisgarritasun unibertsala herritar guztientzako ibilbideak ez diren beste ibilbide espezifiko batzuk jartzea, desgaitasunen bat duten pertsonek espazio edo zerbitzu berberetara

sarbidea izan dezaten, hala nola desgaitasunen bat duten pertsonentzat atzealdean ate bat jartzea edo sarrera berezia jartzea.

- ERAGIN DU **desberdintasuna desagerrarazteko edo murrizteko ekintza positiboko formula gisa desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserba-kuoten eredua izatetik, unibertsaltasunaren eredura, hau da, pertsona guztientzako irisgarritasunaren eredura, aldatzea.** Horrenbestez, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, lanabes eta gailu guztiak hasiera-hasierak izan behar dute pertsona guztientzat, eta hori kontuan hartuta diseinatu eta gauzatu behar dira. Irisgarritasun unibertsalak esan nahi du herritar guztiek izan behar dutela, edozein dela desgaitasuna edo, besteak beste, mugitzeko, komunikatzeko eta ulertzeko zailtasuna, sarbidea espazio, produktu, zerbitzu eta gainerakoetarako, bai eta haietaz gozatzeko aukera ere, bereizketarik egin gabe, kuotarik gabe eta neurri berezirik gabe.
- ERAGIN DU **irisgarritasun unibertsala arau orokorra izatea, etengabe salbuespena izan ordez:** ezin da salbuespena baliatu irisgarritasun unibertsalerako baldintzak betetzeko arau orokorrean.
- ERAGIN DU **ez onartzea "zentzuzko doikuntzak" baliatzea, zehaztugabeko termino juridiko gisa, jarraibide zein irizpide argirik gabe eta helbururik gabe.** Gainera, ezin da inola ere zentzuzko doikuntzez edo salbuespenez baliatu, neurriz kanpoko gastuen kasuan; izan ere, irisgarritasun unibertsala pertsona guztien eskubidea da eta ezin da kostu ekonomikoko gai baten baitakoa izan.
- ERAGIN DU **irisgarritasuna arauetan jasotzeaz gain, irisgarritasuna betetzea eta bete dadin eskatzea:** irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzen direla ziurtatze aldera, egun, ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zehapenak jartzeko mekanismoak daude, bai eta erakundeek erantzukizun publiko hori beren gain hartzeko ere.
- ERAGIN DU **Legea betetzeari buruzko jarraibide eta irizpide bateratuak edukitzea,** eta, hala, Legea aplikatzen, interpretatzen edo betearazten duten arlo eta eragileentzat errazagoa izatea dagozkien egitekoak betetzea.

## IRISGARRITASUN UNIBERTSALA SUSTATZEKO POLITIKEN EGUNGO EGOERA

Elkartearen ekintza erreibindikatzaile horiek guztiek eta erakunde publikoekin elkarlanean egindako lanak eragin du irisgarritasun unibertsala eskubidetzat hartzeari begira aurrerapausoak eman dituen araudia edukitzea, bai eta hura hedatzea ere, erregelamendu bidez garatuta eta beste sektore batzuetako arauetan gehituta. Beraz, eta ezin zitekeen bestela izan, gero eta produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzu irisgarri gehiago daude, eta horrek aukera ematen du desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko eta haiek gizartean parte hartzeko baldintza sozial hobeak sortzeko.

Horrezaz gain, Legea bera eta hura garatzeko gerora emandako dekretuak onartu direnez, administrazio-publikoek, eta bereziki teknikariek, bai eta zenbait alorretako profesionalen estamentuek ere, badute lege-tresna teknikoa, oso balio handikoa beren jarduna irisgarritasunaren parametroak oinarri hartuta bideratzeko.

Espainian aitzindari izan zen, eta hogei urteren buruan oraindik ere irisgarritasun-baldintzak bermatzeko erreferente izaten jarraitzen duen Lege horren ekarpen nagusia hau da: guztiok

baldintza berberetan eskubide osoko herritar izateko, gizarte irisgarriago batez baliatzeko eta gozatzeko pertsona guztien eskubidea bermatzea zeinen garrantzitsua den jakitera ematea eta sozializatzea. Hau da, kontzeptuaren ikuspuntutik, irisgarritasun unibertsala herritar guztien eskubidea dela aitortzen da, eta ez da hartzen desgaitasunen bat duten pertsonentzako baino ez den abantailatzat.

Nolanahi ere, nahiz eta lege- eta esparru-kontzeptua aitortzen den, orain arte egin dugun bidea baino bide luzeagoa dugu oraindik egiteko, uko egin ezinezko helburu hau lortuko badugu: politikan, ekonomian, gizartean, hezkuntzan, lan-alorrean eta kulturan parte hartzeko pertsona guztiok dugun eskubidea benetan eta eraginkortasunez bermatuko duen gizartea eratzea. Oraindik ere pertsona asko dira erabili ezin dutenak produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzu anitzez baliatzeko oinarrizko eskubidea, eta egunero sortzen dira diskriminazioko eta bazterketako egoerak; hau da, gizarte inklusiboa lortzeko lan handia egin behar dugu.

**Hiri-inguruneari eta espazio publikoei** dagokienez, irisgarritasunaren alorreko legeetan xedatutako arauak ez dira betetzen askotan; esate baterako, oinezkoentzako ibilbideetako elementuetan oro har, eta espazio horietan beste elementu eta gailuak jartzean, hala nola edukiontziak, espaloiak, pasabideak, bide-seinaleak, eskailerak, arrapalak, ertz-mugak eta bestelakoak jartzean. Ez da kontuan hartzen Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak, 3.1 artikuluak, xedatutakoa: *"Erabilera publikoko guneek, eta batez ere bide publikoek, parkeek eta plazek, bai eta horiei dagozkien elkarte-hornidurek ere, zerbitzu publikoen instalazioek eta hiriko altzariek, bermatu egingo dute euren irisgarritasuna lege honek eta berau garatzeko arauek ezartzen dutenaren arabera. Botere publikoek sustatu egingo dute lehendik daudenak lege honen aginduetara pixkanaka-pixkanaka egoki daitezen"*.

Hau da, funtsezkoak diren irisgarritasun-planak egin beharra 20/1997 Legearen bidez xedatutako dago, eta, Legeak araututakoaren arabera, plan horietan egokitu beharreko elementuen inbentarioa egin behar da, jarduerak lehentasunen arabera hurrenkeran programatu behar dira eta egokitzapen horien aurrekontua zehaztu. Horren harira, merezi du agerian uztea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako datuak: Araban, 51 udalerrietatik 38k egin du Irisgarritasuna Plana (%74,5); Bizkaian, 112 udalerrietatik 86k (%76,8); eta Gipuzkoan, 89 udalerrietatik 80k (%90). Horrenbestez, nahiz eta Legea onartu zela 20 urte igaro, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien %19,95ek ez du Irisgarritasun Plana onartu, eta, gainera, udalerri askotan ez daude indarrean, jada igaro baitira lau urte, hau da, EAEko udalerrietan irisgarritasun-



baldintzak sustatzeko funtsezko tresna horren indarraldia.

**Etxebizitzaren** alorrean, aipatzekoa da ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak, 7.1 artikuluan xedatutakoa: *"Administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea du etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko"*. Hala ere, mugikortasun urria duten pertsonek ez dute eskubide hori osoki bermatuta; izan ere, EAEko etxebizitza-parkea osatzen duten eraikin eta etxebizitza askok ez dituzte bizitza duina bermatzen duten irisgarritasun-baldintzak betetzen.

Horren harira, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskadiko etxebizitza-beharrei eta -eskaerari buruz 2015ean egindako inkestan honako hau dago jasota, hitzez hitz: *"Etxebizitza aldatzeko premia duten familia-unitateen artean, etxebizitzaren tamaina desegokiak esplikatzen du etxebizitza aldatzeko premiaren %32,4; ondoren dator irisgarritasuna hobetzea %17,1ekin"*. EAEko etxebizitza familiarrei (lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki) buruz Eustat institutuak jasotako datuen arabera (2016ko urtarrilaren 1a), berriz, etxebizitzen %31k ez du igogailua (%27,9 Araban; %33,1 Bizkaian; eta %29,7 Gipuzkoan).

Aurrekoaren ildo beretik, Etxegintzak (Donostiako etxebizitza-sozietate publikoa) egindako azterlanaren arabera, Donostian bi pisu baino gehiago dituzten 9.852 eraikin daude, eta haietatik 1.642 etxebizitzak ez dute igogailua; egoera horrek 30.000 bizilaguni eragiten die, herritarren %15i. Bestalde, 70 urte baino gehiago dituzten 2.883 lagun igogailurik gabeko eraikinetan bizi dira.

Egoera horren adierazgarri ere bada, halaber, "Bilboko etxebizitzei buruzko diagnostikoa" lanean jasotako datuak; Bilboko Udaleko Etxebizitza Sailari atxikitako Udal Etxebizitzak erakundearen Etxebizitza Sozialen Behatokiak egin zuen diagnostikoa 2016an, eta datuen arabera, etxebizitzen %62 ez da irisgarria (hau da, etxebizitza ez-irisgarria izateak esan nahi du gurpildun aulkia behar duen pertsona batek bere kabuz ezin duela etxebizitzarako sartu-atera egin). Bestalde, udalerriko bost etxebizitzetatik batek (%20) ez du igogailurik eraikinean. Etxebizitzaren irisgarritasun-egoera dela-eta ohiko etxebizitzaz aldatzeko beharri buruzko azterketa ere egin zuten. Horri dagokionez, %45ek esan zuen bidea atariraino irisgarria dela, eta %48k, berriz, eraikina irisgarria dela atari barruan. Gainera, %60k adierazi zuen etxebizitzako igogailua etxeko ateraino iristen dela. Eta familia gutxi batzuek esan zuten etxebizitzaren barrualdea egokituta dutela, aldaketa-beharra adierazi duten familien %7,5ek baino ez. Ohiko etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiei, halaber, etxebizitzaren irisgarritasun-egoerari buruz galdetu zitzaien. Eta erantzun zuten pertsonen %46k esan zuen bidea atariraino irisgarria dela, eta %50ek, berriz, eraikina irisgarria dela atari barruan. Gainera, %68k adierazi zuen etxebizitzako igogailua etxeko ateraino iristen dela. %5ek soilik esan zuen barrualdea egokituta duela. Eta azkenik, etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiei galdetu zitzaien ea behar hori irisgarritasun-arazoengatik zen, eta familien %39k erantzun zuen baietz. Zehazki, familien %31k esan zuen eraikinaren irisgarritasun-arazo batengatik zela, eta %8k, berriz, etxebizitzaren barrualdeko egoeragatik.

Bestalde, Espainiako adineko pertsonei buruzko txostenak (2014) honako hau dio: *"Adinekoen artean eragozpena, nagusiki, etxetik irteteko oztopoak dira (%68,1), eta, gero, garraioa erabiltzeko zailtasunak eta eraikinen irisgarritasun-arazoak (desgaitasunen bat duten hiru pertsonetatik batek adierazi du hori; baina 84 urtetik gorakoen artean, hiru pertsonetatik bik).*

Irisgarritasun-gabezia oso oztopo handia da desgaitasunen bat duten pertsonek etxebizitza duina

izateko eta, beraz, norberaren kabuz bizitzeko proiektuak antolatzeko eta garatzeko. Halako mugak etxebizitza libreen merkatuan gertatzen dira batik bat, bai jabetzan bai alokairuan hartutakoetan, eta etxebizitza babestuen merkatura jo beharra eragiten die, eta horrek, halaber, baldintza zorrotzak betetzea eskatzen du.

Hori hala dela berretsi zen Elkartuk Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen egoerari eta beharrizanei buruz egin zuen azterketa-diagnostikoan (2015ean): desgaitasun fisikoa duten pertsonen %63,4 bizi da etxebizitza libre batean, jabetza-erregimenean (Gipuzkoako herritarrei dagokienez, berriz, %76,8); %23,2 babes ofizialeko etxebizitza batean, jabetza-erregimenean edo azalera-eskubideko erregimenean (Gipuzkoako herritarrei dagokienez, berriz, %10,6); desgaitasun fisikoa duten pertsonen %4,9 bizi da etxebizitza librean, alokairuan (Gipuzkoako herritarrei dagokienez, berriz, %11,5); eta %8,5 babes ofizialeko etxebizitza batean, alokairuan (Gipuzkoako herritarrei dagokienez, berriz, %1,1).

Kezkatzeko modukoa da, halaber, alokairuko etxebizitzak sustatzeko baliabide publikoek, hala nola Bizigune Programak, ez edukitzea etxebizitza egokituak mugikortasun urria duten pertsonentzat. Eta ez hori bakarrik, larrialdiko egoeretarako edo beste premia sozial batzuetarako ostatuen irisgarritasun-gabezia arazo larria da desgaitasunen bat duten pertsonentzat; izan ere, gizarte-bazterketako egoeran egotea eragiten die, eta autonomia pertsonaleko eta nor bere kabuz bizitzeko prozesuetan aurrera egitea eragozten die.

**Eraikin publikoei** dagokienez, eta kontuan hartuta haietan eskaini ohi direla administrazio-zerbitzuak edo herritarrentzako bestelako zerbitzuak, irisgarritasunaren alorreko gabeziak handiak dira oraindik ere. 2003an Arartekoak egin zuen txosten berezian (“Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna”) jada adierazi zen honako hau EAE-ko udalerrietako udal-bulegoen irisgarritasunari buruz: *“Aztertutako egoitza guztietatik %41,6 irisgarritasun egokikoak dira; %22,4 irisgarritasun mugatukoak, eta %36 irisgarritasun ezegokikoak. Azterturiko hiru udal-eraikinetatik bat, beraz, ezegokia da mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat”*.

Bestalde, ONCE fundazioak Espainiako udalerrien irisgarritasun unibertsalari buruzko azterlan bat egin zuen 2011n (Espainiako udalerrien irisgarritasun unibertsalaren behatokia), eta aztertu zituzten 70 udalerrietatik 4 EAEkoak ziren. Han jasotako datuen arabera, eraikin publikoen (udaletxeak, batez ere) %42,6k ez du sarbidea zoru-mailan eta haietatik %49,6k ez du oinezkoentzako beste sarbiderik. Gainera, 3 arrapaletatik bik luzera, zabalera, malda eta zoru desegokiak dituzte; aztertu diren solairu bat baino gehiagoko eraikinen %18,5ek ez du goiko solairuetan dauden harrera-guneetara joateko igogailurik, eta komun irisgarria ez du eraikinen %20k.

Arartekoak 2017an beste txosten berezi bat ere egin du, zehazki, *”EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren Diagnostikoa”*, eta datu hauek bildu ditu, besteak beste:

- Ospitaleetako sarbideen %42k eskailerak ditu, eta %82k arrapala ere badute; hala ere, haietatik %44 baino ez dira egokiak, arrapalaren maldari dagokionez. Bestalde, guztiek ez dituzte betetzen irisgarritzat hartzeko baldintzak.
- Harrera-mahaien %26k soilik du altuera txikiagoko eremu bat, eta haietatik %80k ez ditu bete beharreko baldintzak betetzen.
- Itxarongelen %10ek baino ez du aparteko gunea edo gune egokia gurpildun aulkiak erabiltzen dituzten pertsonak zain egoteko. Hortaz, pertsona horiek, zain dauden bitartean, gune desegokietan jarri behar izaten dute, hala nola korridoreetan edo gela erdi-erdian.

- Igogailuen %61ek ez ditu altuera egokian barruko botoiak, %54k bakarrik du sakagailuetako informazioa braillez eta %57k, goi-erliebean.
- Komunen %14k bakarrik du erreserbaegokia mugikortasun urria duten pertsonentzat, aplikatzekoa den araudia kontuan hartuta.
- Aztertutako kontsulten %3k bakarrik ditu beharrezko lekualdatzeak egiteko garabiak.
- Ginekologiako kontsultei dagokienez, ateen %28 bakarrik da igarobide-zabalera libre egokikoa. Ohatilen %45 baino ez da egokia altueran haietara iristeko, eta transferentzia-garabia kontsulten %4k bakarrik du. Ginekologia-kontsulten %12k du aldagela, baina bakar bat ere ez da irisgarria.
- Deigarria da oso zer gela gutxi diren irisgarriak edo irisgarritasun mugatukoak EAEko ospitale gehienetan. Ospitaleratze-guneetan ez daude gela erabat irisgarriak; oro har, traumatologia-guneetan daude. Horrek esan nahi mugikortasun urria duten pertsonak traumatologia-guneetan ospitaleratu behar izaten dituztela, edozein dela ere ospitalean geratzea eragin dien patologia eta dagokien tratamendua.

Bestalde, Fekoor Federazio Koordinatzaileak 2015ean Bizkaiko ginekologia- eta ugalketa-arretako sare publikoko 169 osasun-zentro eta ospitaleri buruzko azterketa-diagnostikoa egin zuen, eta han jasotako datuen arabera, bai eraikinak bai kontsultak irisgarriak dira sarrera nagusiari dagokionez mugikortasun urria duten emakumeentzat, baina kontsultak ez daude egokituta behar bezalako kalitateko zerbitzua eskaintzeko desgaitasunen bat duten emakumeei: ez dute ez ohatila hidraulikoa (aztertutako osasun-zentroen %17k baino ez du, 60 zentroetatik 10ek), ez transferentzia-garabia (aztertutako osasun-zentro bakar batek ere ez), ez eta transferentzietan oinarrizko prestakuntza eman zaien langilerik ere, eta, beraz, ez daude prestatuta segurtasun-baldintzak betetzeko eta erabiltzaileen intimitaterako eskubidea eta haiekiko errespetua bermatzeko, haiek aulkitik ohatilara eta berriro aulkira mugitzean. Horrekin lotuta, deigarria da egokitutako mamografoen gabezia (halako zerbitzuak eskaintzen dituzten 60 zentroetatik 3k bakarrik du, eta aztertutako 4 ospitaleetatik 2k baino ez); hortaz, mugikortasun urria duten emakumeek ez dute bularreko minbizia prebenitzeko hain garrantzitsua den proba hori egiteko aukera.

Merezi du azaltzea, bestalde, hezkuntza-zentroetan ere hauteman direla irisgarritasunaren alorreko gabeziak, bai zentroetan bertan bai bestelako zerbitzuetan (eskola-garraioa, eskolaz kanpoko jardueretan, jarduera antolatuetan, etab.). Eta hori hala da nahiz eta ezinbestekoa den irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzea, hezkuntza-sistema benetan inklusiboa izateko. Gai horren harira, eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoak berak xedeetako bat hau zuen: *“Irisgarritasunari dagokionez, gure erkidegoko ikastetxe guztien egoeraren mapa egitea. Mapa horrek zer aurrerapauso egin ditugun jakiteko balioko du, bai eta etorkizunean zer pauso egin behar ditugun jakiteko ere”*. Gai hori, halabaina, ez zaie helarazi, gauzatu bada behintzat, desgaitasunen bat duten pertsonen ordezkari diren erakundeei.

UPV/EHUko II. Inklusio Planak (2012-2017), egoerari buruzko diagnostikoan, nabarmendu du EHUko webgunearen infoirisgarritasuna eskasa dela, eta azpiegiturak ez direla egokiak arkitektura-irisgarritasunean.

Bestalde, eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoak (2012-2016) dio beharrezkoa dela ikastetxeek irisgarritasuna bermatzea, bai eta diseinu integratzailearen printzipioarekin bat datozen teknologia egokiak eskaintzea, ikasleek informazioa jasotzeko, komunikatzeko eta ikasteko aukera izan dezaten. Lehen ere adierazi dugunez, xedetzat du, bes-

teak beste, *“irisgarritasunari dagokionez, gure erkidegoko ikastetxe guztien egoeraren «mapa» egitea. Mapa horrek zer aurrerapauso egin ditugun jakiteko balioko du, bai eta etorkizunean zer pauso egin behar ditugun jakiteko ere”*. Elkartean konfederazioko kideok ez dugu mapa hori argitaratuta ikusi gaurdaino, ez eta plan horren aplikazioari buruzko ebaluazioaren emaitzak ere. Gaineratu nahi dugu Hezkuntza Sistemaren Estatistikak, Hezkuntza Sailarenak, ez duela gailuen irisgarritasunari edo egokitzapenari buruzko informaziorik biltzen “Informazioaren eta Komunikazioen teknologiak ikastetxeetan” gaitzat hartuta urtero egiten dituen txostenetan (2014-2015 ikasturtekoa da argitaratu den azkena).

Aurrekoaren antzera, IRISGARRI laguntzen deialdia ez dago egun indarrean, eta deialdi horren xedea da itunpeko ikastetxe pribatuei dirulaguntzak ematea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeetan behar bezala eskola daitezen irisgarritasun-obrak egiteko.

**Erabilera publikoko eraikinei** dagokienez, Elkartuk establezimendu publikoek irisgarritasunaren alorreko araudia zer neurritan betetzen duten jakiteko ikerketa-proiektu bat egin zuen 2013an; zehazki, 2011ko ekainetik 2013ko ekainera bitartean hirigintzako jarduera-motaren bat izapidetu (jarduerari ekin aurreko lizentzia edo jakinarazpena, obrak egin aurreko lizentzia edo jakinarazpena, jarduera-legeztatzea, etab.) zuten Gipuzkoako establezimenduek (merkataritzakoak zein aisiakoak) irisgarritasunaren alorreko araudia zenbateraino betetzen zuten aztertu zuen; azterketa horretan, halaber, bereizi egin zituzten Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeari buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurretik eskatutako jarduerak eta gerora izapidetutakoak. Hona hemen zenbait datu:

- Aztertutako establezimenduek (guztira, 414) ez zituzten betetzen, portzentaje handi batek (%58,6), sarbideei buruz lege bidez xedatutako irisgarritasun-baldintzak. Ezbetetzeen kopuruak gora egin zuen (77,2) legea aldatu eta “express baimena” deritzona sortu zenean.



- Sarrerako atearen zabalerak ez zuen indarreko legedia betetzen aztertutako kasuen %22,3tan.
- Jendeari harrera egiteko mahai eta leihatilei dagokienez, oso establezimendu gutxik betetzen zuten legez xedatutakoa (%29,1ek baino ez).
- Aztertutako establezimenduetatik, mugikortasun urria duten pertsonek erabiltzeko komun irisgarria oso gutxik zuten (%47,9), eta haiek ez zituzten betetzen legez ezarritako betebehar guztiak.
- Aztertutako establezimenduen %98k ez zuen seinalizazio egokia ikusteko desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

Antzeko beste gai baten harira, ONCE fundazioak “Espainiako turismoaren irisgarritasun unibertsalaren behatokia” dokumentua argitaratu zuen. Lan hori egiteko aztertu zituzten turismo-zerbitzuko enpresen eta hornitzaileen

%6 EAEkoak ziren, eta, datuen arabera, hotelen %40k ez du desgaitasunen bat duten pertsonen premietara egokitutako gelarik.

**Garraioaren** alorrean, eta jakin badakigu oinarrizko bitartekoa dela desgaitasunen bat duten pertsonek komunitatean parte har dezaten bermatzeko, merezi du aipatzea "EAEko garraio-sistema publikoak duen irisgarritasunaren diagnostikoa", 2011n Arartekoak egindako txosten berezia; hona hemen ondorio nagusiak:



- **Trenbide sistema:** EAEn trenbideko garraio-sistema desegokia da nagusiki, irisgarritasunari dagokionez. Datuak oso adierazgarriak dira: irisgarritasun fisikoari dagokionez, azpiegituraren ondoko oinezkoentzako inguruneen %78 ez da irisgarria; geltokien %78 ere ez; eta aztertutakoen %83k ez du oinezkoentzako ibilbidea bermatzen kaletik andeneraino.
- **Sistema metropolitarra:** instalazioak eta oinezkoentzako inguruneak funtzionalak dira mugikortasun urria duten pertsonentzat, baina zenbait oztopo dituzte komunikazioan.
- **Tranbia-sistema:** tranbia-sistemak irisgarritasun unibertsalaren erreferente dira hiri barruko garraio publikoan. Hala eta guztiz ere, Bilboko eta Gasteizko tranbia-proiektuetan irisgarritasun fisikoko oztopoak kendu ondoren, orain komunikazioko oztopoak kendu behar dira zentzumen-urritasuna duten pertsonentzat erabat irisgarri izan dadin bermatzeko.
- **Errepidean zeharreko sistema (autobusa):** ibilbide luzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten ibilgailuak, oro har, ez dira irisgarriak, ez baitaude behar bezala egokituta mugikortasun urria duten pertsonek erabiltzeko. Hiriarteko zerbitzuei dagokienez, Bizkaian dauden autobusen %91 irisgarria da, Gipuzkoan autobusen %78, eta Araban, berriz, %43. Hiri barruko zerbitzuetan, ibilgailu gehienak zoru baxukoak dira eta erabat irisgarriak dira arrapalen bidez; hala ere, irisgarritasun gabezia batzuk hauteman dira komunikazioari dagokionez, bai geltokietan bai ibilgailuetan.
- **Taxi egokituaren zerbitzua:** egiaztatu da EAEko udalerri askok ez dituztela betetzen (eta haietako batzuk biztanlegune handikoak dira) taxi egokituko zerbitzuak bete behar dituen populazio-kopuruaren araberako parametroak, indarrean dagoen araudiaren bidez xedatutakoak.
- **Airetiko sistema:** EAEko aireportuek betetzen dituzte irisgarritasun fisikoko baldintzak, baina komunikazioan oztopoak hauteman dira, eta horrek zentzumen-urritasunak dituzten pertsonei eragotzi egiten die instalazio batetik bestera joatea.

**Informazioko eta komunikazioko teknologiei** dagokienez, gaur egun funtsezko alorra denari dagokionez, ONCE fundazioak sustatuta IKTen Irisgarritasunaren Behatokiak sare sozialen plataformen irisgarritasuna aztertu zuen 2014an, eta ondorio hau atera zuen: *"aztertutako sare sozialen plataformen irisgarritasun-maila txikia*

*da: analisi teknikoari dagokionez, irisgarritasunean, batez beste, izar bat lortu dute (irisgarritasun-maila oso txikia) eta bi izar, desgaitasun-profil desberdineko erabiltzaileen esperientziari dagokionez (irisgarritasun-maila txikia)".*

Arartekoak ere egin zuen txosten berezi bat horren inguruan 2013an: "E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea". Txosten horretan jasotakoaren arabera: *"Gizarte-sareetan herri-administrazioen presentzia handituz gero, adibidez, galdera honi erantzun beharko genioke: zer gizarte-sarek betetzen du irisgarritasunari lotutako web estandarrak? Estandar horiek betez gero, ziurtatuko da pertsona orok zerbitzu hori berdintasun-baldintzetan erabili ahalko duela, aniztasun funtzionala jasaten duten pertsonak diren ala ez alde batera utzita. Gauza bera gertatu daiteke tresna propioei buruz ari bagara. Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna gainontzeko alderdien gainetik gailendu behar dira, beraz, tresna errazak diseinatu behar dira, pertsona ororentzat erabiltzeko errazak eta guztiz irisgarriak. Hau da, tresna horiek diseinatzerakoan horrelako xehetasunak ahaztea saihestuz e-partaidetzari lotutako sarbide-eten berriak eragiten dituzten oztopo bilakatzea saihesten dugu".*




**Irisgarritasunean emandako aurrerapausoei buruzko ebaluazioari** dagokionez, irisgarritasunaren aldagaia kontuan hartzeko kezka ere ez dugu hauteman EAEko azterlan eta estatistiketan (edozein dela alorra, saila edo aztergaia), ez da funtsezko elementutzat hartzen datu objektiboak eta aldian aldikoak lortzeko, eta haien bidez aurrerapausoak edo atzerapausoak ebaluatu ahal izateko. Esate baterako, bizi-baldintzei buruzko inkestak (Eustat) ez du irisgarritasunaren aldagaia kontuan hartzen analisi-arlo bakar batean ere (ez etxebizitza-beharrei eta -eskaerari buruzkoan, ez etxebizitzen eta eraikinen baldintzei buruzkoan, ez informazio-gizarteari buruzkoan, ez eta zerbitzuen, turismoaren, garraioaren eta komunikazioen buruzkoetan ere). EAEko administrazioek etxebizitzen irisgarritasunerako ematen dituen laguntzen aurrekontuari buruzko informazio banakatua ere ez dago eskuragarri.

Datuek, edozein dela ere aztertutako alorra, agerian uzten dute oraindik ere gabezia asko eta kezkagarriak daudela erabat eta eraginkortasunez bermatzeko produktu, ondasun, inguru eta zerbitzu guztietarako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak. Hala ere, datu objektiboez gain, desgaitasunen bat duten pertsonek egunerokotasunean bizi dituzten egoerek adierazten dute ondoen Irisgarritasuna Sustatzeko Legea tresna baliagarria dela, baina ez-betetzea sistematikoa dela; hortaz, hiri-ingurune eta espazio publikoen, eraikin publikoen, etxebizitzen, garraioaren, informazioko eta komunikazioko teknologiaren eta abarren baldintzak diren bezalakoak direnez, eragozpen dira pertsona guztiek berdintasun-baldintzetan parte hartzeko politikan, ekonomian, gizartean, hezkuntzan, lan-alorrean eta kulturan.

Hori da egungo egoera, eta, gainera, irisgarritasun unibertsala sustatzeko politiketan erakundeen ahalegina eta lidergo politikoa falta da, eta, horren ondorioz, ez da nahi beste aurrera egiten irisgarritasun-baldintzetan, eta irisga-

rritasun-alorreko asmo handiko nahiak gutxi dira eta eskakizunak oso txikiak. Horrenbestez, pertsona guztien eskubideak bermatuko dituen euskal gizarte benetan inklusiboa eraikitzen eraginkortasunez aurrera egingo badugu, askotariko erronkei egin behar diegu aurre. Eta erronka horietako batzuk dira, baita ere, berdintasun-baldintzetan izatea eskuragarri ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak, bai eta informazioko eta komunikazioko sistemak zein teknologiak eta herritar guztientzako edo erabilera publikoko zerbitzu eta instalazioak ere. Eta hori guztia Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenean jasotako terminotan.



# IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESKUBIDEA ERAGINKORRA IZAN DADIN LORTZEKO ERRONKAK

Beharrezkotzat jotzen dugu irisgarritasun unibertsala lehentasunetako bat izatea Euskadin plangintzan, politiketan eta administrazio publikoen konpromisoetan, edozein dela haien jarduera-esparrua eta eskumen-maila; eta, horretarako, ezinbestekoa da eragile guztien inplikazioa eta konpromisoa:

- Lidergo instituzional eta politiko irmoa, irisgarritasun unibertsala sustatzea xede duten politikei beharrezko bultzada emango diena, lortuko bada euskal gizarte inklu-

siboa eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatuko duena.

- Administrazio publikoko arlo eta maila guztietan eragina izango duen zeharkako inplikazioa eta konpromisoa, oinarri hartuta zeharkako ikuspegia eta arlo guztien konpromisoa (enplegua, hezkuntza, osasuna, kultura eta kirola, garraioa, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak...), edozein dela eskumen-maila (EAE, lurraldeak, tokiko erakundeak), eta lehentasuntzat hartuta irisgarritasun unibertsala lan-esparruan.
- Desgaitasuna duten pertsonen ordezkari den hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea bermatzea, parte-hartze benetakoa eta eraginkorra, irisgarritasun unibertsala sustatzea xede duten jarduera publikoko politiken eta ildoen diseinuan, gauzatzeko moduan, jarraipenean eta ebaluazioan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean xedatutakoaren arabera.
- Legea kasuan kasuko arloan aplikatzeaz arduratzen diren gainerako eragileen inplikazioa: arkitektura-, hirigintza- eta diseinu-alorreko profesionalak; epaileak eta fiskalak; udaletako teknikariak, etab.

Irisgarritasuna sustatzeko politikei beharrezko bultzada emateak, 20/1997 Legea onartu zela 20 urte igaro direla kontuan hartuta, berekin dakar zenbait erronkari aurre egitea, lehen aipatutako eragile guztien lidergoarekin, ahaleginarekin, parte-hartzearekin eta konpromisoarekin. Erronka horien artean, Elkartean konfederazioaren ustez hauek dira nagusiak:

- Bermatzea osoki eta eraginkortasunez beteko direla Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hura garatzekoak diren arauak, Legeak berak xedatutako tresnak aplikatuta, kontrolerako zein sustapeneko kasuan kasuko funtzioak gauzatuta eta, beharrezkoa izanez gero, zehapen-erregimena aplikatuta.
- Euskadin irisgarritasun unibertsala sustatzeko estrategia bat diseinatzea eta aplikatzea, oinarri hartuta egoerari buruzko diagnostiko bat eta zeharkako ikuspegia, eta estrategia horren bidez zehaztea irisgarritasun unibertsalaren eskubidea berma dadin lortzeko beharrezko helburuak eta neurriak, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin eta bereziki desgaitasunen bat duten pertsonen ordezkari diren erakundeekin elkarlanean.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenean aitortutako eskubideen ikuspegia sustatzea irisgarritasun unibertsala sustatzeko politiken alorrean, herritar guztien eskubide gisa errotu dadin gizartean.
- Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen ebaluazioa egitea eta, beharrezkotzat joz gero, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioa hertsiki berma dadin lortzen lagunduko duten alderdiak eguneratzea. Ahalik eta segurtasun juridiko handiena eta jarraibideak zein irizpideak ahalik eta gehien bateratuko direla bermatzea, araudia aplikatzeko, bai eta araudia aplikatzen den kontrolatzeko, ikuskatzeko, baimentzeko, gainbegiratzeko eta, beharrezkoa balitz, zehapen-erregimena aplikatzeko.
- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua kontuan hartzearen aldeko apustua egitea, oinarri hartuta berrikuntza eta ikerketa, bai eta teknologiaren alorra ere, irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua xede duten politiken, neurrien zein proiektuen diseinuan, gauzatzeko moduan, jarraipenean eta ebaluazioan funtsezko ardatza izan dadin, eta, hala, produktu, ondasun, inguru eta zerbitzu guztien sarbiderako eta erabilerarako aukera-berdintasunari berrikuntza eta teknologia aplika dadin sustatzeko.

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzen inguruan araututetakoa bete dadin beharrezko neurriak sustatzea.
- Udalek eta foru-aldundiek irisgarritasun planak egin edo eguneratzeko eta, eginak balituzte, aplikatzeko ekimenak sustatzea.
- Erakunde publiko adituek aginte eraginkorra izan dezaten sustatzea, baldintza egoki eta beharrezkoekin, ahalmena eta eskumena lor dezaten araudia benetan betetzen den ikuskatzeko, kontrolatzeko eta interpretatzeko – ez bakarrik aholku-emailea, loteslea ere bai.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren inguruan eragile parte-hartzaile guztiak trebatzeko jarduerak garatzea: arkitektura-, hirigintza- eta diseinu-alorreko profesionalak; epaileak eta fiskalak; udaletako teknikariak, etab. Trebatzea bai hezkuntza-alorraren bidez (lanbide-heziketa, unibertsitateak), bai profesionalen elkargoen bidez, irisgarritasunari buruzko berariazko edukiak sartzea funtzio publikoko langileentzako deialdi publikoetan, funtzio publikoko langileak trebatzea, etab.
- Kontratazio publiko guztietan eta kontzesio guztietan, edozein dela esparrua, irisgarritasunaren araudia bete dadila eskatzea, bai kontratua edo kontzesioa lortzeko, bai hura gauzatzeko.

**Xedea hori izanik, Elkartean konfederazioan irmo jarraitzen dugu lanean, Euskadin desgaitasun fisikoa duten pertsona guztiek irisgarritasun unibertsaleko eta pertsona guztientzako diseinuko baldintzak izateko duten eskubidea aldarrikatzeko. Eta, gainera, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onar zedin gure gain hartu genuen konpromiso-maila berberarekin jarraitzen dugu lanean; izan ere, erabat sinetsita gaude gure eskubideak aldarrikatzeaz gain, euskal gizarte inklusiboagoa, pertsona guztien aukera-berdintasunaren alde egingo duen gizartea eraikitzen laguntzen ari garela.**

**IRISGARRITASUN UNIBERTSALA:**

**GURE ERRONKA.**
**GURE KONPROMISOA.**
**GURE ETORKIZUNA.**